



Trebakuntza 2010/09: ERDARAKADAK III

Udal idatzi askotan erdarakadak sartzen dira, hau da, gaztelaniatik hartutako hitzak, esamoldeak eta abar euskarara ekartzen dira, euskarazko hitz edo esamolde jatorrak baztertuta. Gaurko hau erdarakaden inguruko hirugarren fitxa da.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Siesta ederra **bota** dugu arratsaldean.*
2. * *Arazo hori hamasei urteko gazteengan **ematen da**.*
3. * ***Hortik** dabil kultur teknikaria? Ez, asteen **Bilbotik** dabil.*
4. * ***Beste egunean** hitz egin zuen, kirolaren onurei buruzko jardunaldietan.*
5. * *Auzokoekin daukagun arazoa **sakonki** aztertu behar da.*
6. * ***Posible da** hirigintzako arduraduna ere etortzea.*
7. * *Atxondorako bidea **moztu** egin behar izan dute.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Gaztelaniazko “echar la siesta” esamoldearen kalkoa da, baina euskaraz “siesta egin” da jatorragoa.

*Siesta ederra **egin** dugu arratsaldean.*

- 2.. Gaztelaniazko “se da” aditzaren kalkoa da. Euskaraz jatorragoa da “gertatzen da” edo antzeko aditzen bat erabilia.

*Ad. Arazo hori hamasei urteko gazteen artean **gertatzen da**.*

3. Gaztelaniazko “por ahí” esamoldearen kalkoa da.

*Ad. **Hor** dago kultur teknikaria? Ez, asteen **Bilbon** dabil.*

4. Gaztelaniazko “el otro día” esamoldearen kalkoa da.

*Ad. **Lehenago egunean** hitz egin zuen, kirolaren onurei buruzko jardunaldietan.*

5. Kasu honetan, adberbioak ez dauka atzizkiaren beharrik, nahikoa da “sakon” esanda. Beste adberbio batzuekin ere gertatzen da gauza bera: *ozenki, gogorki...*

*Ad. Auzokoekin daukagun arazoa **sakon** aztertu behar da.*

6. Gaztelaniazko “es posible” esamoldea behin eta berriz erabiltzen dugu, euskarak baliokide jatorragoak izan arren:

*Ad. **Baliteke/litekeena da** hirigintzako arduraduna ere etortzea.*

7. Gaztelaniazko “cortar” hori zuzenean itzultzen dugu sarritan, baina euskarak badauka bere-berea den forma hori esateko.

*Ad. Atxondorako bidea **itxi** egin behar izan dute.*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMako teknikariek:

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org